


KARMELDARREN ELIZA
B MAILA
EASO 75

Egilea eta data: Jose de Gurruchaga, 1912.
Deskribapena

Eliza bat etxadi multzoaren kantoian integratzeko adibide azpimarragarria. Proiektu fasearen arabera, oinplanoaren angeluan dorre bat dago kantoian. Beste bi aurrealdetan erabilitako fatxada soluzio bera erabili zuten eraikitzeke eta kantoia alakan egin zen. Azkenean proiektuan agertzen ez zen moduan eraiki zen, ez dorrea desagertu zelako bakarrik, baita fatxadako zatiak aldatu zirelako eta nabe nagusiko arroseta kendu zutelako ere. Ateladaren gaineko bao zirkular handiaren ordez fatxadako eredu atala ipini zuten, eraikinaren beste lekuetan erabilitako kontrahorma berdinekin. Kasu honetan, ordea, ez ziren lurreraino heltzen. Horrek adierazten du apaintzeko baino ez zutela balio. Oinplanoa hiru nabez osatua dago, gurutzagunea, zinborioa, absidea eta atzealdean gelak dituela. Fatxada neogotikoa da eta, baoen proportzioen sistemari dagokionean, gotiko ingelesaren ezaugarriak ditu.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babestu gabeko elementuak: ez.
 - B.- Elementu iraunkorrak: harlanduzko barrualdeko eta kanpoaldeko elementu guztiak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak:
 - * Elizaren nabea jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.
 - * Gaineko silueta mantenduko da.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.